

HITZARGIAK – Languages illuminating each other

Zarokistan: Raising Kurdish Children Multilingual

GENERAL INFORMATION

DATE: 2016 march

1	Name	Mehmet Şerif Derince
2	Language	Kurmanji Kurdish
3	Working area (education, communication, teaching, leisure, administration...)	Education, Sociolinguistics
4	Email and phone number for contact	serifderince@gmail.com , +90 549 400 2153
5	Social networks (Webpage, Facebook, Twitter...)	@serifderince

DESCRIPTION OF GOOD PRACTICE

1	Description of the practices	<p>Multilingual Preschool Education</p> <p><i>Ibistane Azad</i> izena daukate ikastolek Ipar Kurdistanen. Eskola Askeak. Ama hizkuntza debekatua duen estaturik gabeko nazio handiengan, ume koskorak kurdueraz mintzatzen hasi dira. Mintzatzen eta ikasten. Duela gutxira arte pentsaezina zen halakorik klandestinitatean kurduerari eutsi diotenentzat, edo jadanik, asimilazio politiken ondorioz, hizkuntza guztiz galdua dutenentzat. Diyarbakir hiriburuan, bi milioi pertsonako hirian, jada bost eskola daude martxan. Ferzad Kemanger izena darama horietako batek; Iranek urkatutako irakasle kurduaren omenez.</p>
---	------------------------------	--



Ipar Kurdistanen iaz zabaldutako aurreneko hiru eskoletako bat da Ferzad Kemanger. Ikasturte honetan, urrats sendoago bat egin, eta lehen hezkuntzako beste 11 ikastola jarri dituzte martxan. Hakkarin, Sirnaken, Mardinen, Cizren, Yuksekovan... Guztira 750 ikasle ari dira bertan kurdueraz ikasten.

Eskolak legez kanpokoak dira, eta baldintza gogorretan ari dira lanean, baina, hala ere, zabalik daudel; «Behin baino gehiagotan itxi dituzte, eta guk berriz zabaldu ditugu; irakasleak ere atxilotu izan dituzte, baina hor jarraitzen dugu: bizirik». Diyarbakirgo Udaleko hizkuntza eta hezkuntza arduradunak azaldu du udalek ez daukatela eskumenik hezkuntzaren alorrean, baina egungo *statu quo*-aren gabeziak baliatuz, beren kabuz jarri dituztela martxan eskolak. HDP Herriaren Alderdi Demokratikoak mila bat udalerrri eskuratu zituen udal bozetan eta, mugen gainetik, autonomia horri esker ari dira kurduera hezkuntza sisteman txertatzen.

Haur hezkuntzan beste zirrikitu bat bilatu dute; izan ere, estatuak ez du sei urte arteko haurrentzat hezkuntza aurreikusten; hortaz, haurtzaindegi modukoetan ere kurdueraz irakasteari ekin diote. Horietan mila bat ume daude.

Ipar Kurdistanen herritarren %20 eta %25en artean soilik mintzatzen dira gaur egun kurdueraz. Azken urteetan hasi dira seme-alabei izen kurduak jartzen, hala nola izenak kurmanjieraz idazten; alfabeto latinoan eta ez arabiarrean.

Kurmanjiera eta soraniera dira kurdueraren aldaera nagusiak. Turkian eta Sirian kurmanjiera da nagusi, alfabeto latinez idazten dena. Soraniera, berriz, arabiar alfabetoz idazten da, eta Iraken eta Iranen hitz egiten da. Zazaki, kermanshahi eta laki aldaerak ere baditu kurduerak, eta bost aldaera horietako bakoitzak azpi-aldaerak.

Turkian eta Sirian, ildo horretan, aurrerapauso handiak eman dituzte azken hamabost urteotan estandarizazioaren bidean. Ciladat Bedirxan intelektual kurduak 1932an erabilitako alfabeto latinoan da

erreferentea gramatikaren alorrean, eta, jada eleberriak, testu liburuak, gramatika liburuak eta hiztegiak argitaratu dituzte.

Bedirxanek *Hawar* kurduerazko aurreneko egunkaria sortu zuen, eta, hamarkadetako isiltasunaren ostean, haren lekuko hartu zuen *Azadiya Weelat*-ek.

Telebista ere badute: Zarok. Umeek kurduerazko marrazki bizidunak ikus ditzakete hor.

2	Brief description of the practices	<p>Multilingual preschool education to Kurdish children who do not have the opportunity to receive formal education in their mother tongue. We are following a mother tongue-based multilingual education, where the preschool-aged children start with their mother tongue and learn English and their neighbouring dialect in a comparative method.</p> <p>Eskola hauetan Kurdueraz egiteaz gain, haurrak parekidetasunean eta ingurugiroarekiko errespetuan oinarrituz hezten dituzte.</p>
3	Precedents (reasons, needs...)	Reversing language shift and stopping assimilation
4	Objectives	Maintenance of the mother tongue, raising multilingual children
5	Main and close working areas	
6	Collaborating entities and their working areas	Diyarbakir Metropolitan Municipality
7	Implementation period	All throughout the year

FILE FOR MORE INFORMATION ABOUT BEST PRACTICES



8	Expansion (number of influenced people, internal and external expansion...)	Around 400 children annually
9	Investment (economic, time, people...)	
10	Results	Momentu hautan herrialdeak bizi duen gatazka egoera dela eta zailtasunak dituzte baina aurrera jarraitzen dute.
11	Documentation, reference material	
12	Presentation video	
13	Other relevant information	http://www.egitimdeiyornekler.org/